

59-03-65

Pattinen bokheta

(KOMEDIA TTIPI BAT)

PATTIN, etcheko nausia;

KATICHA, haren emaztia;

CHOBADIN, amaizuna.

PATTIN, bakharrik. — Bi milatia ! Ni zerk hundaratu nu ? Ifernuko deubru zaharrak egin Ju beretarikene ezkontzeko egunian. Ordutx gerotzik ez dut bake limarrik, zorion izpirik. Atso horien sukar-furia ! ... Batian emaztia erasian oihuka, bestian amaizuna gorasiaka.

Bat elhetik athertu orduko bestia io tzen da heiagoraka. Eman hor, kalaika zarra; hats-bahi, eta bethi mintzo. Mihipeko zaina ez ohal zaun trenkantuko !... Zahurrek jonik dagoene bizi herresta. Eta ni bethi petzero, uzkipitza !... Ez othe da gizona gizon saskipetik ere ? Altaa behin kechatzen baniz...

II

PATTIN, KATICHA eta CHOBADIN

KATICHA. — Zer ! zuru buruarekin elheketa ? Igi norapeit, alfer tunante, etche jalia. Has lanian.

PATTIN. — Zer lan ?

KATICHA. — Hauche da goldia, Musde Janfutre. Etche guzia gain-azpikatua, zokho horiek urdia bezain zikhinak, eta oraino galdeka, haur trochatu berri bat iduri, ahoa zabalduz begi alimale batzu larrituz... « Zer lan ? » ori, zer lan ?...

CHOBADIN. — Jakinen duzu ene alaba chuchen mintzo dela. Aingeru hutsa da, gichakoa, ichila,

PATTIN. — Uste nuke !

CHOBADIN. — Gichakoa, ichila eta sobera prestua zu bezelako senhar herrementa batentzat. Frangotan uxten zitu jats giderraz panpapakoak eman beharra...

PATTIN. — Baduzia burutik ? Jatsgiderraz, eni, gizon batia ?

CHOBADIN. — Eta zendako ez ? zure ona bilhatzen du Katichak eta zinez maite duenak badaki kasakoena emaiten... Efche batean emazteak dauzka gobernioko gider guziak...

PATTIN. — Hala-nola jatsarena gizozaren joiteko !

CHOBADIN. — Icho ! eginen dituzu emazteak manatu lan guziak.

PATTIN. — Nundik deubru ! Buliga bezala nahasia niz. Biak batian mintzo zirezte eta ez da halako barazuza uharrak nola baitira zuen atheraldia. Nik ichildu behar eta zuek bethi olateko haga bezen garbi !

CHOBADIN. — Hola denaz gainean buru-fugnen freskatzeko izkirioz hautuko dituzu Katicharen manamendua.

PATTIN. — Jainkoaren eta Elizaren manamenduen aldean ?

CHOBADIN. — Icho ! eta hitzehitz obratuko dituzu paper hartan czariak.

PATTIN. — Begon paso eta goazin hortarik. Bakia erosiz on da. Adimendu sendoaren jabe zira, Chobadin amultsua. Huna payerra; mintza beraz; dena beharri niz.

KATICHA. — Izkriba zozu, goiz guziez lehenik jeikiko zirela, sua phiztuko.

PATTIN chutitzen da eta firrindaka

botatzen du luma. — Debruetarot ! ni lehenik jeikiko eta sua phiztuko ? Zer kariaz othe ?

KATICHA. — Ene zaiaren berotze-ko. Aditu duzu ? Nun da jatsa ?

PATTIN. — Eztiki, ez bero. Izkribatu ditut nahi dituzun guziak. Ezar dezagun beraz « zure zaiaren berotze-ko ». Bekhatu litake mafrunditzen bazine, ene bihotzeko pinpili-pampala-gnoa, muchulin zeratikakoa, chu !

KATICHA. — Icho ! zozo-pilikitza ! Ez niz trufa-gese eta ar aitzina !

PATTIN. — Zaudet, ankerik ez dut; lehen hitzetan niz oraino.

KATICHA. — Haurra iratzarten den aldi guziez, balakatuko duzu, amultsu-ki jostatuko harat-hunaka ibiliz, arrabotsik egin gabe.

PATTINEK horrodden du paperra. — Hunek badu bchar ez den zerbeit, eskualde bat eria...

KATICHA eta CHOBADIN. — Beharko duzu oraino...

PATTIN. — Jainkoaz othoi ! emazue oldizka !

KATICHA. — Mintza zite, ama.

CHOBADIN. — Ez balinba ! ez da eni manatzia. Pattin zure senharra da.

KATICHA. — Pegarra betheko duzu.

CHOBADIN. — Behoka edanarako.

KATICHA. — Lapinen phazka bildo-ku.

CHOBADIN. — Cherrriak phazkatuko.

KATICHA. — Egurrak chehatuko.

CHOBADIN. — Phorru-postinagriak ekharriko eta kozina on bat eginen, gatzbipherrik izarian ezarriz' ogi-bustirik hartz gabe eta tturriola hora kitzikatu gabe. Azken puntu horri begi atchikiko dugu.

PATTIN. — Nik sinhets !

KATICHA. — Begi atchikiko dugula. Egundainoko molts'ondo gorienak chimurtu dira gizon edoje batzuen faltaz.

PATTIN. — Nik ez dakit bainan, mihi gaichtoek diote etche-alde hoberenek peko erreka jo dutela emazte tzar batzuen gatik, badirela gizonak sobera prestuak, zaharo ukholdika ibili

behar litazken emazte saltsero batzuen esku-makhila bilhakatuak eta ber-tzalde...

CHOBADIN. — Azken hori sobera-kina duk ! Nun da jatsa ?

PATTIN. — Ja ! ja ! Ez niz zuretzat mintzo gero. Ez ahal zirezte pira hortakoak, zuek, nolako presuna balio-sak eta jite aberatsekoak...

KATICHA. — Elhe auher guti beraz eta izkriba aintzina. Haurren chatarak murruskatuko dituzu...

CHOBADIN. — Zuharek churiturik idorrarazik...

PATTIN. — Alainan ! Hasiz gerozendako ez ? Dendarik ez da joanen zi-reztela othe pikatzeratene orde ?

KATICHA. — Nork egundaino ikusi du holakorik ? emaztiak othe ephai-ten ? Ahantzi gabe bokheta ere trenpan ezarriko duzu, etche guzia zilharra bezein garbi atchikiko.

CHOBADIN. — Erhauts birbira bat nihun utzi gabe.

PATTIN. — Horiek oro eginen ditut, bainan, hitz derautzuet, ez niz manatu horieratik kantitzen. Gaineratiko lan guziak... ttutt ! ez dut zotzik hunkitzen...

KATICHA. — Erron bezala. Gau on, ama maitia.

CHOBADIN. — Bihar arte, gaicho hausra.

PATTIN. — Bai hiri, ere Pattin. Egi-zak lo ! lehen nigar-marrakak aditu-artino...

III

PATTIN eta KATICHA

KATICHA. — Hea, Pattin, lagun nezazu.

PATTIN. — Zertan ?

KATICHA. — Oihal horien bokheta Zubanaren barnian sartzen.

PATTIN. — Andere Katicha, ezt.ki-chago othoi, dugun ikhus paperrian de-nez. (Paperra hedatzen du).

KATICHA. — Haste zirikeria ! Erna zite, berantza gorria dugu; behar ditugu oihalak bihurtu. Ez duzu berdin eskapurik : izkribatua da. Ala behar dautzut legea bizkarrean finkatu makhila-ukhaldika ?

PATTIN. — Eni makhilarik ex alpha zure onetan ! Barkhatu, barkhatu, chuchen zira. Zola-zolan ezaria nuen : bokhetaren trenpan czartzia...

KATICHA. — Tira beroz oihal hau. Nun tuzu zainak, oilo busti, uli medikua ?

PATTIN. — Badut aski eginik; zain bat edo bertze behartuko zaizt indar ka ariz...

KATICHA. — Tira edo botatzentzautzut muthurrerat... (Erran bezala egiten du).

PATTIN. — Busti pelotua niz; arropak fundituak... Hobeki zirea orai ?

KATICHA. — Icho ! loih zite berriz..

PATTIN. — Atchikiko dut ene alderdia. Hea, nor den nogusi ?...

(Bastako tiratzen du eta Katicha erortzen da zubanaren barnerari).

KATICHA. — Gizon trukes, eskoila, ez bertzia...

(Burua agertzen du). Azken hatsetan niz... Pattin, zato laster ene atheratzerat. Erna, Pattin, erna, zure emaztia ithotzerat doha, fitz zure eskua...

PATTIN (bulta baten buruan). — Ez baita hatik hori paperrian...

KATICHA. — Pattin, ene amadio bakarra, ene bihotzeko lilia, hel hel ene salbatzerat...

PATTIN. — Ez baita hori paperrian. Arras untsa hiz hor, edazan zirrizta bat. Hupa, hupa. Mariagno ! Katicha, femme léchitime de Pattin il est dans le zuben et il boit dé l'eau. (Irakurtzen du paperra). So egizan « Ichenik jeikitza, suaren phiztia... »

KATICHA. — Hel, Pattin, hel, hotz-ikharak zainetan !...

PATTIN (irakurtuz). — Zaiaren berotzia...

KATICHA. — Ura gaindi beharrerat barna...

PATTIN. — ...Pegarraren bethetzia.

KATICHA. — Pattin, ura ahotik eta begietarik !...

PATTIN (bethi irakurtuz). — Behokaren edandraztia, cherrien phazkatzia, egurren chehatzia...

KATICHA. — Pattin, barne guzia nahasia dut, gorputzu dal-daran... hel ! hel !

PATTIN. — Bainan, emazteki bitchia, hauche da thema, ez dela paperrian !

KATICHA. — Akhabo ! hil da zure emaztia. Adios sekulokotz. Hou hou ! Ifernurat johan zira. Pattin, habil, habil, itchindu gorria. Itxotzerat utzi duk hire emaztia...

PATTIN. — Ifernurat ? zer derasan, ifernurat ? hire orde ? Ez dun holokorrik paperrian (Irakurtzen du) « Ogi bustirik ez hartzia, tturilaren ez kitzi-katzia » are gutiago bokhetako zubana, emaztia hon delarik barnian ! Bon foijache, Katicha eta sans adié... Cho ! borthan joka...

IV

PATTIN, CHOBADIN eta KATICHA

CHOBADIN. — Hea, idok bortha hau.

PATTIN. — Ez da paperrian. Idoki-ko dut halere ikhus dezazun nolako planton den zure alaba...

CHOBADIN. — Heldu niz nere begiez ikhusterat nola johan diren gauzak...

PATTIN. — Ezin hobekicage ! Enc emaztia hila da...

CHOBADIN. — Zer diozu ? Ez niz irrígura.

PATTIN. — Ni segurik ba. Elheketa ari zelarik, zubanaren barnerat erori da, egarría baitztaken.

KATICHA. — Ama, ni hemen, zato, zato...

CHOBADIN. — Heldu niz, haurra. Pattin, emazu esku-ukhaldi bat.

PATTIN. — Ez da paperrian Ian hori.

CHOBADIN. — Errazu berriz, info-mio, odol edalea. Hilitzerat urtzen duzula zure emaztia ?

PATTIN. — Ba naski ! Nagusi behokar izanen niz...

CHOBADIN. — Erhotu zirea ?

PATTIN. — Chuchen-chuchenian...

CHOBADIN. — Alon ! traidore bel-

tza, ahuspez othoitzen zitut (belauniko jartzen da).

PATTIN. — Beraz hemendik-horat ni chapeldun, orotan nagusi ?

CHOBADIN. — Baietz eta gu biak zure meneko.

PATTIN. — Egin dezagun bertze par bat.

KATICHA. — Hatsu ! Hatsu !... ez du balio, fida zite...

PATTIN. — Beraz amor emaiten duzu, Katicha, ziren bezalako lichtafin galdua ? Ezagutzen ditutzuene zuzenak ?

KATICHA. — Baietz eta baietz ! Hatsu ! ni bethi zubanaren zolan !

PATTIN. — Aithorizen duzu soberian zela gizon batentzat; esneketariaren astoa ni baino usago zela ?

KATICHA. — Ba, Pattin, barkha, miletan barkha...

PATTIN. — Katicha, lehenik jekiko zirea ?

KATICHA. — Ba, eta kofia zuri oherat ekharriko.

PATTIN. — Sua phiztuko duzu ?

KATICHA. — Baietz, zure galtzen berotzeko !

PATTIN. — Kabalak pazkatuko ?

KATICHA. — Baietz, zure auherutzeko.

PATTIN. — Ihurgiez artha har-tuko ?

CHOBADIN. — Segurki baietz, Pattin, zure larru mehearen beiratzeko.

PATTIN. — Beraz akhabo erasiak eta muthur saldak ?

KATICHA. — Hemendik horat po-chirik hoberenak zuretzat, tturila zure gain eta gure esker ona beitzalde.

PATTIN. — Aski hitzemanik oroi, erranak obra (Atherotzen du Katicha zubanetik).

J.-B. MENDIZABAL.

CRÉDIT LYONNAIS

1863 an ESTABLITUÀ = Capital et Réserves : 2 Milliards

BAYONAKO buregua

BIARRITZEKO buregua

AKIZEN buregua

MONTDEMARSANEKO buregua ..

DONIBANE-LOHIZUNEKO bureguas

HENDAYE bureau permanent

Libertateko Plazan.

Georges-Clémenceau Plazan.

Place de la Fontaine chaude.

Rue Léon-Gambetta.

Boulevard Tiersko Plazan.

Avenue du Général de Gaulle.

Crédit Lyonnais-ek Hartzen eta Pagatzen ditu

AMERIKETAKO Chekak eta Paper suerte guziak

Saltzen eta erosten ditu Paper eta titulu suerte guziak

CREDIT LYONNEK emaiten ditu publikoari behar dituen argitasun guziak tituluaren erostzaren gainean bai eta kontseilu hoberenak dirua ongi pausatzeko

Pagatzen ditu COUPONS INTRES guziak, eta
ESTRANJEREKOAK